

10/2026 Irizpena, martxoaren 18koa Nafarroako Foru Administrazioaren ondare-erantzukizuna legegintzako egintza batengatik.

Eskatzailea: Osasun Departamentua

Txostengilea: Eduardo Santos Itoiz

Interesa: Legegintzako egintzaren ondoriozko ondare-erantzukizuna: betekizunak.

Irizpen honen xedea da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ondare-erantzukizuneko erreklamazio bat, erreklamatzailerak aurkeztua, lege-aldaketa baten ondorioz sortutako ustezko kalteengatik. Aldaketa hori gauzatu zen Nafarroako Foru Komunitateko zentro soziosanitarioetako farmazia-zerbitzuen eta medikamentu-gordailuen farmazia-arreta arautzen duen otsailaren 22ko 12/2023 Foru Dekretuan.

Erreklamatzailerak dosifikazio-sistema pertsonalizatuetan espezializatutako farmazia baten titularra da (Osasuneko zuzendari nagusiaren apirilaren 26ko 928/2013 Ebazpenaren bidez baimendua), eta alegatu du 12/2023 Foru Dekretuak bere jardura mugatzen duela, ezartzen baitu farmazia-zerbitzurik ez duten 100 plaza baino gutxiagoko zentro soziosanitarioek medikamentu-gordailu bat izan beharko dutela «farmazia-eremu bereko farmazia-bulego bati lotua». Halaber, foru dekretuak ezartzen du zentro soziosanitarioetako medikamentu-gordailu bat baino gehiago egon daitezkeela lotuta farmazia-bulego bakar bati, baldin eta gordailu guztien mendekotasun-egoeran daudenentzako plazen batura, osotara, 100 baino txikiagoa bada. Ondorioz, bulegoei dagokionez, muga bat ezartzen zaie mendekotasun-egoeran dauden 99 pertsona baino gehiago ez dituzten gordailuei, eta murrizketa horrek kalte ekonomikoak eta pertsonalak eragin dizkio, hala nola negozioaren zati bat galtzea, diru-sarrerak murriztea, kaleratzeak, desinbertsioak eta farmaziaren balioa murriztea.

Ondare-erantzukizunak eskatzen du kalte bat egotea, partikularrak legez jasan beharrik ez duena eta hirugarren baten jarduerari kausalki lotuta dagoena. Kalteak benetakoa, diru aldetik zenbakarria eta indibidualizatua izan behar du.

Estatu legegilearen erantzukizunari dagokionez, Kontseiluak jurisprudentzia aztertu du, eta ezarri du jurisprudentzia horretatik ondorioztatzen dela zenbait baldintza bete behar direla, erreklamazioak aurrera egin ahal izateko. Legegintzako egintza baten ondoriozko ondare-erantzukizuna, Konstituzioan berariaz aurreikusita ez badago ere,

administrazio-egintzengatiko erantzukizunaren antzera onar daiteke, baldin eta legegintzako ahala ohiz kanpo erabiltzen bada, horrek kaltea eragiten badu, eta kaltetuak juridikoki kalte hori jasatera behartuta ez badaude. Kalte horrek, neurri handi batean, jabetza pribatuko eskubideari edo enpresa-askatasunari eragin ohi dio. Erantzukizun hori baloratzeko, araua segurtasun juridikoaren ikuspegitik aztertu behar da, hartutako neurriaren eta lortu nahi diren helburuen arteko proportzionaltasuna kontuan hartuta, bai eta neurri horren justifikazio egokia ere. Gainera, eragindako ondare-sakrifizioa kontuan hartu behar da, eta berezia izan behar du.

Erreklamatzaillearen jardura 622E/2017 Foru Aginduak arautzen zuen. Agindu horrek erantzukizunpeko adierazpen bat eskatzen zuen, bost urtean behin berritzekoa, eta, hura bete ezean, jardura etetea ahalbidetzen zuen. Ez zegoen baldintzen “fossilizatorik”, titularrak bazekielako araudia alda zitekeela eta ikuskapenen eta zehapenen mende zegoela. Funtsezko aldaketa 12/2023 Foru Dekretuarekin iritsi zen. Dekretu horrek zentro soziosanitarioetako farmazia-arretari buruzko Estatuko eta foruko aurretiazko arauak garatzen ditu. Dekretu horrek ez ditu ustekabeko betekizunak gehitzen, baizik eta jada lege jasota dauden eta osasun publikoko eta asistentzia-kalitateko arrazoiengatik justifikatuta dauden aurreikuspenak, eta ondorioztatzen da ez zela urratu erreklamatzaillearen konfiantza legitimoa, eta ez zela bidezkoa kalte-ordainik ematea, arau-aurreikuspen bat eta egokitzapen-aldi bat egon baitziren.

Era berean, Kontseiluaren ustez, ez da kalte berezirik edo indibidualizaturik gertatu, foru dekretua Foru Komunitatearen lurralde osorako aldarrikatu baita, eta bertan dauden farmazia-bulego guztiei aplikatuko zaie, baldin eta beren jardura Nafarroako lurralde-eremuaren barruan garatzen badute.

Halaber, Kontseiluaren ustez, araudiak ez du urratzen erreklamatzaillearen jabetza-eskubidearen edo enpresa-askatasunaren funtsezko edukia, zeinak, Konstituzioaren arabera aitortuta egon arren, onura publikoaren mende baitaude, eta, are gehiago, osasun publikoa edo kolektiboa bezain garrantzitsuak diren ondasun kolektiboak direnean. Hartutako neurriak beharrezkoak eta egokiak dira lortu nahi den helbururako, ez dira irrazionalak, eta espedientean justifikatuta eta arrazoituta daude.

Horregatik guztiatik, Kontseilu honen ustez, Administrazioak ez du ondare-erantzukizunik aztertutako legegintzako egintzagatik.